

EKONOMIA ERREGIONALARI BURUZKO ZENBAIT OHAR: EUSKAL HERRIKO KASUA

Goio Etxebarria Kerexeta

**EHUko Gizarte eta Informazio-Zientzien
Fakultateko Irakaslea**

Lan honen helburua ekonomia erregionalerako lehenengo hurbilketa bat egitea da. Horretarako, oinarrizko azterketa erregional bat egingo dugu, autore desberdinen zenbait kontzeptu eta definizio ikusiz. Bigarren sail batean, kokatze erregionalaren ezaugarriak eta produkzioaren arazo espazialak aztertuko dira, Doreen Massey-ren metodologiari jarraiki. Hau ikusi ondoren, krisiaren eraginez sorturiko gatazka eta borroka erregionalen dinamikari begirada bat emango diogu. Azkenik, egoera horri eman zaion irtenbidea (liberalismoa) eta, Lipietz-en ustez, eman ahal zaion irtenbidea ere analizatuko ditugu.

Oinarrizko azterketa erregionala

Sail honen xedea "erregio"aren kontzeptua laburki aztertzea eta, batez ere, kontzeptualizazio honen kokagunea finkatzea da.

Lehenik, erregioaren kontzeptuaren zentzua nazio-estatuaren barnean egotean datza. Horregatik, hasteko, nazionalaren eta erregionalaren autonomia neurtu beharko litzateke; neurketa hau egungo egoeran, nazio-estatuaren kompetentzien krisia bai kapitalismo liberalaren internazionalizazio hazkorraren aurrean bai ekonomia erregionalen garapenaren aurrean, egin beharko litzateke.

Lipietz-ek dioenez, "espazio sozio-ekonomiko jakin bat agertzen da (...), alde batetik, harreman sozialen artikulazioaren islada edo emaitza bezala eta, beste aldetik, (...) harreman sozial hauen garapenari inposatzen zaion muga objektibo bezala" (Lipietz, 1985, 5). Gizarteak bere espazioa birsortzen du; harreman dinamikoak ezartzen dira, edozein espazio erregional dinamika jakin baten menpean dago; ez dago egoera estatiko batean, zeinetik krisia ez den pasatzen. Egoera hau iraganetik datorren heredentzia batean oinarritzen da¹.

Izan ere, Euskal Herriko "erregioak" edo espazioak zer heredatzen du iraganetik?. Alde batetik, Hego Euskal Herria espainiar estatuaren barnean, merkatu kapitalista bakarraren barnean, dagoen espazio

ekonomiko bat da. Bigarrenik, autonomia erlatiboaren historia, aurreko garai bateko foralismoa, heredatzen du, zeina produkzio-molde ez-kapitalista bati bait dagokio. Hauxe da Euskal Herriak jaso duen heredentzia historikoa, zeinetik abiatzen bait gara gaur egun Euskal Herriko "erregioa" aztertzeko.

Arin eta laburki, "espazio sozial"aren kontzeptua garatuko dugu. Kultura marxistaren ikuspegitik espazio erregionala espazio sozial baten proiektzioa, espazio jakin batean gertatzen diren harreman sozial dinamiko batzuren islada, da. Beraz, harreman sozial hauek ez dira estatikoak; etengabeko borrokek, gatazkek eta barneko kontraesanez harreman sozial horiek aldatzen dituzte denboran zehar. Alegia, borroka-dinamikarengatik harreman sozialen etengabeko erreproduktzio-prozesu bat ematen da.

Kontzeptualizazio-mota hau, bere jatorrian literatura marxistan garatzen da: Gramsci (Gramsci, 1975), Poulantzas (Poulantzas, 1968) eta Lipietz-engan (Lipietz, 1977) aurkitzen dugu (azken honek aurreko horiek jasotzen ditu). Ikuspuntu honetatik, talde sozialak bereiztea oso garrantzitsua da; talde sozial horiek, Poulantzasen terminologiaz, bloke sozialak osatzen dituzte. "Bloke soziala zera da: erlazio sozio-ekonomikoek definitzen dituzten talde sozial batzuren edo talde batzuren pusketen lotura, talde horien xedea suertatzen diren erlazio-moduak mantentzea edo aldatzea delarik"

(Lipietz, 1985, 7). Bloke horien artean erregio batean bloke hegemoniko bat izan daiteke. Beraz, lehenengo bereizpen bat aurki daiteke: a) alde batetik, espazioaren kontzeptu geografiko bat edo kontzeptu guztiz objetibista (era paradigmaticoan, "nazio"aren kontzeptu stalinista), eta b) espazioa harreman sozial batzuren bidez eratzen da, non harreman sozial horiek giza talde eta kolektibo batzuren islada bait dira. Aurrekoen helburua dagoen status quo mantentzea ala aldatzea da.

Lehenengo arazoa hau da: espazioaren teorizazio-mota hau nazio-estatu historikoaren arabera eginda dago. Izan ere, nazio-estatuaren mailan aipaturiko kontradikzio horiek eta talde sozial desberdinen arteko dinamika erregulatzen eta arautzen dira, metaketa-erregimenak finkatzen dira, merkatua batzen da eta erlazio kapitalistak birsortzen dira². Honen barnean, erregulazioari buruz egindako lanak sar daitezke: horiek analisi estatualistak dira eta ez dituzte berezitasun azpiestatalak edo erregionalak kontutan hartzen. Horregatik, teorizazio horiek espazio ez-estatalak azaltzeko baliagarriak diren ala ez eztabaida daiteke. Halaber, eta interesgarriagoa dena, erlazio sozialek espazio nazio-estatu baino txikiagoetan autonomia duten eztabaida dezakegu. Baietza izatekotan, espazio horietan teorizatu ahal da.

Guztiz eztabaidagarria da orain arte izandako instituzio erregulatzaile orokorrak maila ez-estatalean finkatu diren ala ez, instituzio horiek jokabide

sozialen elkargarritasuna kapitalaren metaketa-erregimen baten barnean segurtatzen dutelarik. Hemen, adibidez, alokairu-erlazioa³ aipa dezakegu, zeinak lanorduen, intentsitatearen, lanindarraren balioaren, kontsumoaren, erreprodukzioaren eta abarren arauak finkatzen bait ditu; beste erregulazio-era, monetaren erreprodukzioa, gestioa, jaulkipena eta zirkulazioa da. Erregulazio-era hauek espazio nazio-estatalaren monopolioak dira.

Krisi-egoeran, erregulazio-era horiek eta nazio-estatuaren espazioa baliagarriak diren ala ez galde daiteke. Agian, espazio estatalaren baliogalera hori espazio erregionalen onerako izan daiteke: konpetentzia batzu berreskura ditzakete. Jakina, estatuak galduko dituen erregulazio-era batzu, monetarenak zein besteak, ezin izango dira espazio erregionaletan kokatu, kontrakoa gertatuko bait da. Baina, baliteke beste erregulazio-era berri batzu espazio erregionalera pasatzea. Hala ere, puntu hauek azken sailean zehaztuko ditugu.

Erregulazio eta produkzio-moldeen bidetik abiatzen bagara, Lipietz-ek egiten duen bezala "erregio ekonomiko" eta "oinarri erregionala" definitzean, oztopo handi hau aurkituko dugu: espazio azpiestatal bat erregio ekonomiko ezezik oinarri erregional ere bihur daitekeela. Hala ere, erregio ekonomiko zein oinarri erregionalerantzako joera batzu aipa daitezke: subiranotasun-maila (ekonomiko, politiko eta soziala) espazio azpiestatal jakin batzutan hazkorra da.

Horrela, "erregio ekonomiko" eta "oinarri erregional"aren kontzeptuak definituko ditugu. "Erregio ekonomikoa", Lipietz-en ustez, "berezko espazioa da, lurralde homogenoa dena, eta bertan produkzio-molde desberdinak eratzten dira" (Lipietz, 1985, 11); homogenotasun honek ez du esan nahi barneko diferentziak desagertzen direnik. Eraketa hori erregio ekonomikoen arteko bereizgarria da. "Erregio ekonomikoaren barnean metaketaren azpierrejimen jakin bat dago, eta honen bidez erregio honek kanpoarekiko harremanak mantentzen ditu" (Lipietz, 1985, 12).

Bestalde, "oinarri erregionala" zera da: "Bertako talde hegemoniko eta klase dominatzaile batzu dauden berarekiko espazio bat. Talde horiek erakunde eta aparatu batzu (ideologiko, politiko eta sozialak) dituzte espazio horretan sor daitezkeen gatazka sozio-ekonomikoak kontrolatzeko eta integratzeko. Beraz, erregio ekonomiko batean oinarri erregional bat edo gehiago era daitezke eta erregio ekonomiko bat oinarri erregionalik gabe izan daiteke" (Lipietz, 1985, 12).

Aurrekoa ikusita, beste eremu batean sartzen gara: kompetentzien mailan. Hemen galde dezakegu ia kompetentzia instituzional edo politikoak diren, eta ia bertako bloke hegemoniko dominatzaileak kompetentzia horiekin gai diren estatuak duten papera, orokorrean edo partzialki, betetzeko. Orain arte, "estatu-nazioak legislazioaren unibertsaltasuna, (batez ere, legislazio

soziala), monetaren monopolioa eta, azkenik, legezko biolentziaren monopolioa [izan du]" (Lipietz, 1985, 12). Bestalde, kanpoarekiko harreman ekonomikoak Estatuak balantza batean isladatzen ditu. Ekonomikoki, balantza honek orekarantz joan behar du edo, behintzat, bere desorekak Estatuak jaso behar ditu. Honetaz, espazio azpiestatalak edo erregionalak ez ditu bere kanpo-erlazio ekonomikoak orekatu behar, ez ditu bere esportazioak eta inportazioak parekatu behar. Beraz, erregioaren pagamendu-balantza eta estatuarena ez dira konparagarriak. Pagamendu-balantza erregionalaren defizitak⁴ ez dira kitatu behar; balantza estatalaren defizitak, ordea, kitatu egin behar dira. Balantza erregionalaren defizitak estatuaren barnean orekatzen dira, estatuaren erakundeen bidez edo barneko transferentzien bidez (zergen diferentziengatik, adibidez).

Lipietz-en planteamenduari jarraituz, oraindik "gatazka eta arazoak ezin dira oinarri erregionalen mailan erregulatu, nazio-mailan⁵ baizik" (Lipietz, 1985, 13). Hala ere, arazo erregionalak edo lokalak ere, kasu batzutan, arazo "nazional" (estatal) bihur daitezke. Adibidez, ekonomia "nazional" frantsesaren Europako Ekonomi Elkartearrekiko harremanetan nekazal erregioentzako konpentsazioek dira bere mamia osatzen dutenak; beraz, erregio horien arazoa konpromezu "nazional" bihurtzen da. Halaber, Euskal Herriko siderurgia, unzigintza eta beste sektoreen arazoa konpromezu "nazional" espainol bihur daiteke, hori konpontzeko erregioak baliabide

nahikorik ez duelako; horrez gero, espainiar estatuak erregio honen arazoa EEEn aurrean defendatuko luke. Baina, nazio-estatu horrek zenbait konpromezu izan ditzake eta hauek kontrajarriak izan daitezke (adibidez, siderurgiarena); orduan, arazoa da nola soluzionatu konpromezu horiek. Ikus daitekeenez, erregio maila horretan ez dago ahalmenik sortutako arazo horiek erregulatzeko; are gutxiago, nazioarteko mailan. Hala ere, badira posibilitateak nazio-estatua konprometatzeke, arazo horien konponketan.

Amaitzeko, metaketa fordarraren eta nazio-estatuaren markoaren arteko erlazio zuzena badagoela esan daiteke; fase fordarrean erregulazioa (monetarena, kredituarena, ...) marko estatalean ematen da. Marko horretan, "Estatu-probidentziaren sarreren perekuazioa [ematen da]" (Lipietz, 1985, 16); Estatu-probidentzia eremu sozialean, batez ere, eratzen da. Baskongadeetako kasuan, azpimarratu beharko genuke Aseguru Sozialaren transferentzia errearen garrantzia Euskal Herriko Komunitate Autonomoarentzat. Kontutan hartuz, orain arte, sarrera sozialen erregulazioa Estatuaren eskutan zegoela, Aseguru Sozialaren legeak egiteko ahalmena lortzeak estatu horren konpetentziak kolokan ipiniko lituzke. Agian, horregatik mantendu nahi da kutxa bakarraren printzipioa, alegia, azken berrogei urtetan garatu den estatu-probidentziaren berezko osagai bait da.

Kokatze erregionalak

1. Kokatze erregionalaren faktoreak (Inbertsioaren mugimenduak)

Harreman sozialen ikuspuntutik egingo dugu analisia, Doreen Massey-*k* egiten duen bezala (Massey, 1984). Hala, autore horri jarraituz, kapitalen kokatzearen funtsezko hiru erizpideak⁶ aztertuko ditugu. Horietako erizpide isolatu batek ez du zentzurik kapitalen kokatze-prozesuan. Denak batera, ordea, elkarbetetzen dira; praktikan, erizpide horien jerarkizazio desberdinak izango dira, aztertzen den espazio bakoitzaren arabera.

Lehenengo erizpidea hau da: kapital batek egitura ekonomikoan daukan kokagunea. Honetaz, beste autore batzuk bezala, input-output analisiaren bidez neurturiko erlazioak oso eskasak direla azpimarratzen du. Horregatik, beste analisi-mota bat proposatzen du: adibidez, kapital finantzarioak eta industrialak bereizten dira eta horien arteko harremanak ikertzen dira. Euskal ekonomiari dagokionez, analisi historiko bat planteatzen dugu: garai zehatz batean, Banka aurreko industri metaketa prozesu batetik eratorri zen eta, geroago, banka berorrek industri metaketaren prozesu jakin bat bultzatu zuen. Bestalde, beste analisi-motak ere egin daitezke: ekonomiaren atalen arteko harremanak aztertu⁷ (produkzio-ondasunetako atalaren eta kontsumo-ondasunetako atalaren arteko erlazioak, ikuspuntu marxista batetik).

Bigarren erizpidea: lan-prozesuaren izaera. Lan-prozesuaren izaera kokatzeko erabakiak hartzean oso garrantzitsua izan daiteke. Analisi historikoa egin daiteke, historian zehar garatu diren lan-prozesu guztien eta hauek ekartzen duten aldaketa espazialen arteko lotura aztertuz. Euskal ekonomiari dagokionez, agian, produkzio-mota batzuren kontzentrazioa alde batzutan (adibidez, Nerbioi arroan) edo lan-prozesu batzuren sakabanaketa beste alde batzutan (adibidez, Gipuzkoako kasua) analizatu ahal dira. Bestalde, inbertsioen kokatzearen gai klasikoagoak badira: esate baterako, lan-prozesuaren inputen eta espazioaren arteko harremanak. Halere, analisi konbentzional mota hauek ez dute geografia prozesu historiko jakin baten heredentzia bezala ulertzen. Laburtuz, Massey-ren ikuspuntua produkzio-antolaketa eta produkzio-kokatzearen arteko erlazioa aztertzean datza. Honetaz, zerbait zehaztuko dugu geroago.

Hirugarren erizpidea kapitalaren antolakuntza egitura da. Egitura hau modu askotan neur daiteke. Agian, kapitalaren tamaina har daiteke neurritzat: enpresa handiak eta txikiak, kapital monopolista eta kapital txikia, e.a. Analisi honen oinarria kapital-mota horiek sor ditzaketen erlazio sozial desberdinen azterketa da: adibidez, zergatik kokatzen dira kapital desberdin horiek espazio desberdinetan?.

Kokatze-faktore guzti hauek, nahiz eta konbentzionalak eman, Massey-ren metodologiaren azala besterik ez dira. Guzti hau erlazio sozial batzutan

oinarritzen da. Honela, produkzio jakin baten azpian dagoen egitura, zeina erlazio sozial dinamikoa eta klase-gatazka batzuren islada bait da, aztertu behar da. Beraz, produkzioaren analisia ez da mugatzen lantegi barneko lan-zatiketa teknikoaren bidez eratzen diren erlazioetara edo enpresa barnean kapitalaren eta lanaren arteko harremanetara. Aitzitik, lan-prozesutik at, batez ere, sortzen diren erlazioak espazio horretan kapitala kokatzeko eta erreproduktzeko erabakiorrak izango dira. Izan ere, Massey-ren analisia hiru ardatz hauetan datza: espazio jakin batean, produkzio eta beronen antolaketan, kokatze-prozesuan (alegia, analisi espazialean) eta harreman sozialetan. Helburua horien artean eratzen diren egiturazko erlazioak aztertzea da.

Erlazio sozialekin hasiz gero, klase sozial desberdinak bereizi beharko ditugu. Euskal ekonomiarentzat horrelako azterketa egin dezakegu. Hau dela eta, krisian zehar jabetza kapitalisten erlazioen aldaketak, jabetza industrialaren aldaketak, jabetza publikoaren aldaketak eta abar analizatu behar dira. Bestalde, erdiko klaseari eta langileriari dagokienez, zera aztertu beharko litzateke: krisialdian jabetza txikiaren arazoa, ihardueraren aldaketak, famili errenta eta sarrera erabilgarriak, kontsumo-arauaren aldaketak, ekonomi ihardueraren berresleipena⁸, langileen erakundeak eta horien aldaketak, langileriaren integrazio-maila Hego Euskal Herrian, erdiko klaseak eta instituzionalizazio publikoa Baskongadeetan, industri hondamenaren ondorio ideologikoak

etab. Analisi dinamikoa egiten saiatu behar da, zail samarra izan arren.

Dena den, erlazio sozialetan oinarritutako analisia ez da klaseen azterketara soilik mugatu behar. Erlazio sozialetan beste aldagai sozial batzu ere sartzen dira, alokairu-erlazioa kondizionatzen duten aldagaiak barne direlarik. Alegia, lanindarrari dagokion guztia aztergaia da: hezkuntza, koalifikazioa, talde sozialak aldaketetara egokitzeko gaitasuna, Analisi konbentzionalek ez dituzte erlazio guzti horiek kontutan hartzen. Alde batetik, badira produkzio-prozesuen aldaketak, produkzio-indarretako dinamikaren aldaketak, berrikuntza teknologikoaren eta espazioaren antolakuntz aldaketak; horien arteko erlazioak eta erlazio sozialak ere ahazten dituzte ohizko analisi horiek. Adibidez, lan-merkatu lokal bat aldaketa guzti horien eragilea izan daiteke edo, aitzitik, aldaketa horiek emateko oztopo gaindiezina izan daiteke.

Laburtuz, metodologia horretan klase-egitura sozialak erabaki espazioletan eragina du. Oinarritzko adibide bi aipa daitezke:

a) Bata, higikortasun geografikoari buruzkoa; kapitalak lanak baino higikortasun-maila handiagoa dauka. Esaterako, krisialdian, kapitalak produkzio-mota batzu, zenbait aldaketa edo teknologia berriak ezarri nahi dituenean, oztoporik aurkitzen badu, kokagunea aldatzea erabaki ahal du, bere higikortasun geografikoa dela eta.

Adibidez, eskulan ez-koalifikatua behar denean kapitalak kokagune desberdinak aukera ditzake, horiek eskaintzen dituzten abantailen arabera (fiskalak, finantzarioak, ...) eta langileriaren mantsotasunaren arabera (historia industrial eta lan-tradizioa ez duten espazioetan langilegoa ez da organizaturik egoten).

- b) Bigarrena, hiru aldagai-multzo hauen arteko erlazioari dagokiona:
1. Produkzioa, teknologia, lan-antolakuntza, lan-eskaria, kapitalaren tamaina eta egitura.
 2. Kokatzeko estrategiak.
 3. Politika estatal desberdinak⁹.

Hauen arteko erlazioen arabera epekatze historiko bat era daiteke.

Amaitzeko, aipatu besterik ez, kokatze-prozesu batean aztertu beharko liratekeen faktore batzu: enpresen batezbesteko adina, tamaina, enpresen jabetza (atzerritarra, estatala, nazionala, erregionala), hiri-dentsitatea, erregioaren kokagunea, lanindarraren koalifikazioa, Azken hauek heredentzia erregionalaren zenbait ezaugarri adierazten dituzte, hain zuzen ere; horien eraginez desindustrializazio-egoeran emaitza desberdinak eman daitezke.

Izan ere, aldagai absolutuen¹⁰ eragina erregio bakoitzean desberdina bada iraganeko heredentzia geografiko eta industrial horregatik da. Horretarako, elementu hauek izan beharko lirateke kontutan: erregioaren konposaketa industrial, hiri-nekazal

osagaiak, enpresa eta lantegien banaketa antzinekotasunaren eta tamainaren arabera, enpresa berriak sortzeko joera, ihardueren desperekotasuna, estatuak erregioan garatzen duen politika erregionala, hiri-sakabanatzearen politika dagoen ala ez,

2. Produkzioaren arazo espazialak

Hemen ere, Massey-ren metodologiari jarraitzen diogu (Massey, 1984). Gure xedea produkzio kapitalistaren egitura espazialak aztertzea da. "Produkzioari dagokionez, molde espaziala eta estrategia espaziala metaketaren eragile aktiboak izan daitezke. Kapitalak distantzia eta diferentzia erabili ahal du, bere onerako" (Massey, 1984, 68).

Maila praktikoan, produkzioaren egiturak espazioan eta horien arteko erlazioak (hierarkia batzuren bidez) aztertu ahal ditugu.

Lehenengo maila hierarkikoa ama enpresaren eta eskumenpeko enpresen artean ematen da; "managerial" motako harremana edo jabetza-erlazioa da.

Bigarren harreman-mota honela eman ahal da: sortzapena, alde batetik, eta produkzio-prozesuaren beste faseak (produkzioa bera, muntaketa, ...), beste aldetik, espazio desberdinetan kokatuta daudenean. Sortzapenak ikerketa eta garapena kontrolatzen du.

Hirugarren maila hierarkikoa produkzioan ematen den lan-zatiketa teknikoa da. Honek ondorio geogra-

fikoak beti ez izan arren, lan merkatuaren egituraketaren diferentziek produkzioaren zatiketa espaziala erraz dezakete.

Hiru produkzioaren egitura espazial hauek ez dira eman daitezkeen guztiak; adibidez, egungo egoeran subkontratazioa aipatzekoa da.

Euskal Herriari dagokionez adibide batzu ipin daitezke, gaia agortu gabe. Lehenengo maila hierarkikoaren adibidetzat, Nerbioi arroan dauden ekipamendu-ondasun elektriko handiak har ditzakegu. Une historiko batean, jabetza Westinghouse-ren eta General Electric-en eskuetan dago eta hemengo filialek ama enpresan sorturiko ondasunak eta prozesuak egiten dituzte. Are gehiago, beraiei dagokien merkatuaren (merkatu espainiarraren) eskakizunarengatik, ama enpresaren produkzio-estrategiari jarraitzen diote, ama enpresari interesatzen zaizkion produkzio-segmentuak betez. Gestioari dagokionez, ama enpresak gestio-gile nagusiak (administrazio-kontseiluan zein gerentzian) bidaltzen ditu. Hierarkia honen ondorioak geroko krisiaren aurrean oso garrantzitsuak izango dira. Izan ere, krisian ama enpresak filiala abandonatzen duenean, filiala hankamotz geratzen da, zeren egundaino gestio zentrala, banakuntz erabakiak eta oinarrizko sortzapena ama enpresan egin bait dira. Kasu horretan, merkatu "nazional"aren kuotak mantendu nahi badira, bazkide teknologiko berria bilatu behar du enpresa filialak. Hain zuzen ere, hauxe da gaur egun sektore honen

problematika. Maila hierarkiko horretan ere, kimikari dagokionez, atzerri-kapitalaren partaidetza oso handia da Hego Euskal Herriko enpresa filialetan.

Bigarren maila hierarkikoan, ekipamendu-ondasunak ere eremu honetan egongo lirateke, alde batetik, sortzapenaren eta, bestetik, produkzioaren beste faseen arteko zatiketa bait dago. Bestalde, siderurgiak, gure ekonomian oinarrizko sektorea denak, ez du ikerketa eta garapena kontrolatu; desbates teknologikoko egoera honetan ezin ditu irtenbide teknologiko berriak garatu. Krisialdian gutxi-egitasun hauek nabariagoak dira. Esaterako, siderurgia ez-osatuaren fusio-prozesuetan ikerketa- eta garapen-unitateak sortzea behar-beharrezkoa da. Orain arte siderurgian izandako egoera, sektore horretan gertatzen diren teknologi aldaketen motengatik justifikatu egin da; siderurgia osatuan, batez ere, oinarrizko aldaketak ez dira etengabe ematen eta normalean historikoak izaten dira. Hala ere, gaur egun ematen diren teknologia horiek mugaturik ere, ikerketa eta garapenaren bulego baten bidez egoera hoba daiteke. Konkretuki, siderurgia osatuan "petrolioaren krisi" ondoren izandako bultzada teknologiko nagusienetariko bat energiaren kostuak murriztera zuzendua izan da. Beraz, teknologia nagusi baten aldaketa desberdinak eman daitezke, lantegietan (ikerketa eta garapenaren bulegoaren bidez) teknologia horiek kontrolatzen diren neurrian.

Hirugarren mailari dagokionez, zatiketa espazialaren kasua (lan-zatiketa tekniko batetik sortua) zenbait sektoretan ematen da (batez ere, automobilean eta elektronikan). Esaterako, muntaia (teknologia oso aurreratua izaten duena) koalifikazio gutxiko langileek egin dezakete; honela, lan-kostuak murrizten dira. Hala ere, sektore horietako sortzapenak koalifikazio-maila izugarria eskatzen du; horregatik, sortzapen-prozesua espazio geografiko jakin batzutan, soilik, finkatzen da (tekniko-eta injineru-kopuru handiekin, unibertsitate-enpresen lokarri indartsu batekin). Hala eta guztiz ere, euskal ekonomian sektore horiek ez dira oso inportanteak.

Gatazka erregionalaren dinamika krisialdian

Sail honetan erregioaren talde sozialen jarrerak, estatuaren aurrean zein krisiaren aurrean, analizatuko ditugu. Lipietz-en ustez (Lipietz, 1985), krisiaren aurrean talde sozialen jarrerak desberdinak dira. Hona hemen aurkitzen ditugun taldeak edo blokeak: kontserbadorea, modernista, transformatzailea eta atzerakoia. Jakina, bloke hauek ez dira itxiak, haien arteko mugak malguak direlarik.

Alde paradigmaticoan, historian zehar, espazio erregional batzutan kapital monopolistaren garapenari talde edo bloke batzuk aurre egin ziezaioketen. Bloke horien barnean kontraesanak izan zitezkeen: agian, bloke berean batzu kapitalistak (baina

ez-monopolistak) eta besteak langileak izan zitezkeen. Hau Euskal Herrian historikoki azter daiteke¹¹. Gaur egun, agian, gogo antizentralista bat soma daiteke; gogo baterakoi hau etsai abstraktu ezezagun baten aurrean sortzen da. Etsai hori kapital monopolista multinazionalaren partaidea da, eta Estatuak da beraren islada. Hala ere, hau oso erlatiboa da; izan ere, burgesia txiki eta ertainaren talde batzu (hain zuzen ere, PNV-k ordezkatzeko dituenak) kontutan hartzen baditugu, zeharo argi dago talde horiek ez daudela kapital monopolistaren ezta multinazionalaren kontra ere. Beraz, borroka erregionala ez da nahitaz erradikala eta antikapitalista.

Momentu batzutan, borroka erregionalak (kasu askotan interklasista denak) heredatutako esplotazioa bere baitan integratu ahal du. Bloke hegemoniko "esplotatzailea" abagadunaren arabera langile-blokearekin (bloke "zapaldu"arekin) elkartu ahal da. Bloke esplotatzaile horrek borroka nazionala gida dezake; gainera, talde horien batasuna agertzea interesatzen zaio, batasun horrek erregio-barneko esplotazio egoera izkuta bait dezake. Hots, bloke nazionalista edo antizentralistaren barnean jarrera kontserbadoreak eta erradikalak batera ager daitezke.

Desindustrializazio-prozesu baten aurrean, birmoldaketa industrialaren aurrean, zer gertatzen da bloke nazionalistaren barnean?. Birmoldaketek ikuturiko langileek zer nolako papera joka dezakete "krisiaren erregionalismo berrian?".

Normalean, langileak kapital multinazionalaren estrategien kontra egongo dira. Bestalde, langileak metaketa nazional-estatalean (garai forditarrean) eskuratutako eskubideak (sozialak, batez ere) mantentzen saiatuko dira. Honetatik jarrera desberdinak ateratzen dira: batzu neokorporatiboak, beste batzu legezko eskakizunak (erakunde sindikalak eta aseguru soziala mantentzeko), beste batzu funtzionarioen eskakizunak (ia pribilegioak direnak), Izan ere, barneko kontraesanak sortzen dira.

Lipietz-en ustez (Lipietz, 1985), uhin liberal modernista bat sor daiteke; horretarako, bloke kontserbadore edo sozial demokrata batek kapitalak behar dituen aldaketak (metaketak inposatutako egoera berrietara egokitzeko) gidatu behar ditu. Welfare State-ren krisiaren aurrean irtenbide liberal bat dago, egunez egun inposatzen dena. Irtenbide liberal honen ondorio latzeneratariko bat enpleguaren desoreka espaziala da¹².

Irtenbide liberal horrek "espazio-hierarkiaren aldaketa eskatzen du, nazioarteko mailan zein estatu mailan zein maila lokalean" (Lipietz, 1985, 24). Alde batetik, irtenbide horrek "lokala" bultzatzen du; maila lokalean, lanindarraren erreprodukzioa¹³ ematen da. Halaber, maila lokalean, behar eta premia sozialak ere betetzen dira, baina benetako arazoak ez dira konpontzen, estaltzen baizik. Aurrekoaren adibide argi bat udaletxeen laguntza sozialean aurki dezakegu. Bestalde, kasu batzutan

maila lokalean (edo eskualde batzutan) berrikuntz oinarri bat finkatu nahi da. Adibide argiena teknopoloak dira, gehienetan garapen erregional osoarekin loturarik ez dutenak, irla isolatu batzu direnak.

Irtenbide liberal honetan, estatuak konpetentziak galtzen ditu; hala ere, estatuak nazioarteko mailan enpresa "nazional"en interesak ordezkatzen ditu eta enpresa horien konkurrentzialtasuna garantizatzen du.

Internazionala nagusia da, oinarri ekonomiko nagusia da, non kapitalaren garapen beharrak sortzen bait dira; beste espazioek funtzio osagarriak bete behar dituzte. Irtenbide internazional honek irtenbide erregional aurrerakoari aurre egiten dio.

Azkenik, krisi egoera erregionala aurkeztean, "desindustrializazio"aren kontzeptua zehaztea komenigarria da. John Rhodes-en ustez, desindustrializazioa zera da: "herri edo erregio baten porrota, enplegu bete lortzeko, produktuaren zein mota guztietako esportazio netoen hazkunde-tasa aski ez izateagatik" (Martin and Rowthorn, 1986, 138). Kontzeptu hau sinpleegia eta "ekonomikoegia" (deskriptiboegia) da; oso estatikoa da. Adibidez, erregio batek enplegu bete erlatiboa lor dezake, koherentzia maila minimora iritsi gabe, produkzioaren dibertsifikazioa lortu gabe, ekonomi atal 1 eta 2.aren arteko oreka izan gabe, subiranotasun-maila handiagoa lortu gabe, etab¹⁴. Hala ere, kontzeptu murriztu hau ekonomilari eta instituzio

batzuren pentsakeraren islada da. Baina, zenbait erregiotan (xede nazionalista duten erregioetan) helburua ez da krisira arte izandako egoerari eustea, zeren honek ekonomia ez-koherente bat, atal 1 eta 2.aren arteko desoreka, produkzio sakabanatua, banaketa politiko, ekonomiko eta soziala mantenduko bait luke. Guk, ordea, proiektu desberdin bat lortu nahi dugu; aurrean aipatutakoa gainditzen duen proiektu bat. Honek ez du krisi aurrean zegoen egoera bera birsortzen; honela, Euskal Herrikoan produkzioaren, ekonomiaren eta gizartearen aldaketa koalitatiboa izango litzateke xede nagusia.

Irtenbideak

Hasteko, erregioak duen kontrol ekonomikoa aztertuko dugu, Massey-ren ikuspuntutik abiatuz.

Hauxe dugu lehenengo arazoa: erregioak bertan produzitzen denaren gainean eta produkzio industrialaren gainean daukan kontrola. Dakigunez (G. Uranga eta Herrero, 1983), zenbait adarretan produkzioa "azpimultzo-merkantzia"tan banatzen da; azpimultzo horiek espazio desberdinetan egin daitezke. Horregatik, azpimultzo jakin baten kontrolak ez dakar produkzio horren kontrola, produkzio oso baten zati bat besterik ez delako.

Espazio batean finkatuta zeuden kapitalek, krisiaren eraginez, alde egin dezakete, erregioaren desenplegu

maila igoaraziz. Oso interesgarria da Euskal Herrian sortzen diren bankuen ("Banco de Bilbao" eta "Banco de Vizcaya") historia industrialaz aztertzea; nahiz eta laster "nazional" edo estatal mailako bihurtu, haien inbertsio nagusiak Euskal Herrian zeuden finkaturik. Garai horretan inbertsioa zurgatzen zuten produkzio horiek goraldian zeuden. Hala ere enpresa horiek krisian (edo lehenago, errentabilitatea behera joango zela aurrikusiz) sartzen direnean, banketxeak beste sektore errentagarriagoetara abiatzen dira, kontutan izan gabe zein espaziotan kokatzen diren sektore horiek. Alegia, banketxe horiek euskal industria abandonatzen dute.

Normalean, kontrol erregionalaz mintzatzen denean, inbertsio erabakien gaineko kontrol kapitalista ulertzen da. Hala ere, hau ezin da eskakizun progresista izan. Gure helburua, ordea, "jabetza ekonomiko osoaren kokatze sozialaren aldaketa [izango litzateke]" (Massey, 1984, 102). Beste hitzetan, benetazko kontrol lokalak produkzioaren erlazio sozialen aldaketa eskatzen du, eta ezin da oinarritu bertako klase kapitalista espazio horretan kokatzeko eskakizunean, kontutan izan gabe zeintzu diren kokatze horren baldintzak eta esplotazio mailaren gorakada. Beraz, guztiz kontrajarria da erregio bateko langileriak inbertsio kapitalista batzuren etorrera eskatzea, horrekin batera teknokratik, zuzendariak eta kapitalistak ere agertuko bait dira. Hain zuzen ere, politika erregional-estatal batzuz kritikatu dugun zentzu horretakoak dira:

parke zientifiko teknologikoak eta unibertsitate elitista batzuz erakartzen saiatzen direnak, erregio horiek erakargarri bihurtu nahian. Beraz, ikuspuntu aurrerakoi batetik, ez dira bakarrik enpleguak eskatu behar, inolako koalifikaziorik gabe; Massey-ren hitzez, erregioak funtzio beteak eskatu behar ditu, produkzioaren segmentazioak oztopatzen duen kontrola eskuratuz, "multzo-merkantzia" kontrolatuz, ekonomia erregionala koherenteago bihurtuz. Edozein inbertsio onartzearen arriskua zera da: erregio horretako langileriak bere baitan esplotazio-araua onartzea eta, etorkizunari begira, erregioak bere ekonomi baliabideak autokontrolatzeko gaitasuna galtzea edo murriztea.

Irtenbideei dagokienez, Lipietz-ek espazioarekiko planteamendu liberala aztertzen du. Lehenik, politika erregionalen aldaketak ematen dira (adibidez, Britainia Handian, lehen, helburua erregioen arteko enplegu-maila orekatzea zen)¹⁵.

Liberalismoa dela eta, oinarri ekonomiko nagusia nazioarteko mailan dago. Konkurrentzialtasun internazionala astunagoa da, beste espazio-mailetan bere eragina areagotuz. Maila lokalean, produkzio-era berrien garapenak eta informazio eta komunikabideen teknologia berrien garapenak kolokan jartzen dituzte espazio lokalaren ezaugarri sozialak. Ez dago erregulazio-tresnen bultzada maila lokalean eta espazio hori ez da edukinez (instituzioen aldetik, politika-mailan) betetzen.

Honen aurrean, beste irtenbide desberdinak izan daitezke: proiektu federala, adibidez. Proiektu horren arabera, Estatuak ezingo lituzke erregulazio makroekonomikoaren instituzio berberak mantendu. Horregatik, oinarri erregionalek tresna erregulatzailerik batzu (politika sozialarenak) eskuratuko lituzkete; estatuak interes "nazional"en gestio internazionala mantenduko luke. Oinarri erregionalek lanindarraren erreproduktzio arloan kompetentzia gehiago izango lukete; lege sozialak oso malguak izango liriteke. Arazo bat sortzen da: Estatuaren barnean status quo-a aldatzen ez bada zenbait erregio azpigaratuak geratuko liriteke, egongaitzasun-egoerak sortuz. Interesgarria da krisian zehar estatuaren leislazioen aldaketak aztertzea; espainiar estatua krisian aldatzen da, alde batetik, 1977.eko aldaketa politiko koalitatiboagatik eta, beste aldetik, efikaziaren izenean. Horrela, "Autonomien estatua" sortzen da, estatuaren erregionalizazio berria eratzen da¹⁶.

Bestalde, irtenbideen analisisa utzi gabe, EEEko analisisa eta 1992.etik aurrera sortuko den prozesu berria aztertu behar dira. Alde batetik, argi dago erregulazio amankomunen erak bultzatzeko behar kapitalista: konpromezu eta politika bateratukoagoengatik, kompetentzia batzu erakunde amankomun batzuren eskuetan utziko dira. Autore batzuk erregulazio makroekonomiko bateratua, europar estatu bakar baten bidez, aipatzen dute. Hala ere, bide horretan kontraesan handiak agertuko dira.

Orain arte, EEE ez da gai izan oreka erregional gutxienezko bat mantentzeko, erregio bakoitza atzerri-inbertsioa erakartzen saiatzen delarik. Honetaz, EGIN egunkarian argitaraturiko artikuluko batean zera irakur daiteke:

"Politika erregional konbentzionala (hain zuzen, azken urteetan Gasteizko gobernuak daramana) honetan datza: pizgarrien sistema bat bultzatzean, zeinaren bidez atzerri-inbertsioak erregiora (espazio lokalera) erakartzen bait dira. Hau dela eta, beste erregio edo nazioekiko lehiaketan sartzen da, guztietatik erakargarriena izateko asmoz.

Inbertsio-helburu hori lortzeko herriak horrelako gauzak eskaini beharko lituzke: lanindar ez organizatu bat (eskakizun gutxi duena) eta baldintza gogorak (erosahaltenaren galerak eta produktio-baldintzen narriadura) onar ditzaketan sindikatu batzu"¹⁷.

Kompetentzia estatalen galera ez dago konpentsatuta EEEko erakundeetan beste erakunde erregional eta lokalen parte hartzearekin. Irtenbide aurrerakoiagoak izan daitezke: errenta hobeto birbanatzeko, lanaldia murrizteko eta oreka erregionalak lortzeko politika koordinatuak¹⁸.

Lipietz-en irtenbidea (Lipietz, 1985), progresistatzat har daiteke, erreformista izan arren (lehenengo krisi handiaren ondoren eman zen

konpromezu sozialdemokrataren antzekoa). Gaurko estatuak oraindik klase-gatazkak erregulatzen ditu, baina estatuak ez ditu hobakuntza sozialak bermatzen. Estatuak berak, ordea, aurreko garai horretan eskuratutako eskubide eta laguntza sozial batzuek ezabatzen ditu. Politika progresistaren helburuak hauexek dira:

- a) Hiritarrek bere kontsumo era eta bere bizimodua kontrolatzea, eta langileek teknologiaren eta produkzioaren aldaketak kontrolatzea, baita lanindarraren erreproduzioa ere.
- b) Bestalde, laguntza eta estaldura sozialak mantentzea, ideologia eta praktika liberal dominatzailearen aurrean.
- c) Produkzio sozialaren helburua aldatzea, erabilera sozial alternatiboak bultzatzea.

Guzti honek gaurko praktika erregionalak kolokan jartzen ditu, espazializazio berri bat ekarriz (koalifikazio, enplegu, produkzio eta erabilera sozialari dagokionez). Hau dela eta, oinarri lokalek erregulazio eta kontrol-maila handiagoa izango lukete, hiritar, eta langileen partaidetzarekin.

Estatu-mailan, eredu estatu federala izango litzateke, bere betebeharrak hauek izanik: nazioarteko erlazioak erregulatzea, sarreren perekuazioa mantentzea eta erregio guztientzako estaldura eta legislazio sozial minimo bat finkatzea.

Nazioarteko mailan, eratuko liratekeen bloke supraestatalen politika ekonomikoak aurrerakoiak izango lirateke. Hauek gaur egun gobernu neoliberalak zein sozialdemokratek daramaten gestioarekin kontraesanetan daude.

Oharrak

- 1 Heredentziaren ideia autore batzuren aurkitzen dugu: Lipietz, Massey,... Ikus bibliografian aipaturiko lanak.
2. Ikus Lipietz, 1985, 10 or.
3. Alokairu-erlazioaren kontzeptua garatzeko, ikus A. Lipietz, *Reflexions autour d'une fable. Pour un statut marxiste des concepts de regulation et d'accumulation*. Paris, CEPREMAP n° 8530.
4. Hauek neurtzeko arazoak badira.
5. Gure terminologian, estatu mailan.

6. Hala ere, erizpide horien balioa ez da hori bakarrik; espazio baten koherentzia ekonomikoa neurtzeko oinarriak izan daitezke.
7. Horretarako, J.L. Herrero eta M. Gomez Urangaren liburuan (G. Uranga eta Herrero, 1983) erabiltzen den metodologia eskuratu behar da.
8. Horrela, zerbitzuen, industriaren eta nekazaritzaren artean eman diren aldaketak aztertuko lirateke; adibidez desagertze-prozesua analiza genezake.
9. Politika estatalen barnean politika erregionalak direlarik.
10. Aldagai absolututzat nazioarteko konkurrentzia, teknologiaren antzekotasuna eta abar ulertzen da.
11. Mendearen hasieran, liberalak-zentralistak, alde batetik, eta nazionalistak-burgeseria txikia, beste aldetik.
12. Hain zuzen, hauxe da autore anglosaxon askoren interesgunea.
13. Baina orain ez dago estatuaren eskutan; hein handi batean, pribatizatuta dago.
14. Esaterako, garai zehatz batean, Galizian koherentzia ekonomikoa eta subiranotasun-maila guttiz urria da. Hala ere, desentplegu-tasa erlatiboki txikia da, emigrazioari esker.
15. Honetaz, ikus Philip Cooke eta Kevin Morgan (1985).
16. Autonomien estatuaren hutsuneak azter ditzakegu. Izan ere, gobernu erregionalak oraintxe aipatzen dugun egoeran daude: a) haien kompetentziak ez dira ugaltzen (gehienek deszentralizazio hutsa isladatzen dute) eta ez dituzte gaintzen lehenago erregioak zituen kompetentziak; b) haien baliabideak urriegiak dira joera-aldaketak sortarazteko; c) haien orientabide programatikoak krisiaren gestioaren politika liberalez guttiz kutsatuta daude. Arrazoi hauengatik oso zaila da erakunde hauek ekonomiaren erregulazailerik bihurtzea, estatu kapitalista batzutan momentu batean plangintzak bete zuen papera izanez.
17. M.G./G.E., "Una especialista británica explica su alternativa de intervención económica desde la izquierda". *Egin*, 1987.5.17.
18. Ezin dugu ahaztu desorekak, indizeen arabera, gero eta nabarmenagoak direla.

Bibliografia

- COOKE, P; *Inter-regional class relations and de redevelopment process*. Papers in Planning Research n. 36, Department of Town Planning, UWIST, Wales.(1981).
- COOKE, P. eta MORGAN, K; *Flexibility and the New Restructuring: Locality and Industry in teh 1980's*, Papers in Planning Research n. 94, Department of Town Planning, UWIST, Wales, (1985).
- URANGA, M. G. eta HERRERO, J. L; *Dinámica del capitalismo, crisis y economía vasca*, Hordago, Donostia, (1983).
- GRAMSCI, A; *Cartas desde la cárcel*, Edicusa, Madril, (1975).
- LIPIETZ, A; *Le capital et son espace*, F. Maspero. Ed. augmentée 1983, Paris, (1977).
- LIPIETZ, A; *Le national et le regional: Quelle autonomie face a la crise capitaliste mondiale?*, CEPREMAP n° 8530, Paris, (1985).
- LIPIETZ, A, *Reflexions autour d'une fable. Pour un statut marxiste des concepts de regulation et d'accumulation*, CEPREMAP n° 8530, Paris.
- MARTIN, R. eta ROWTHORN, B., editoreak; *The Geography of De-Industrialisation*, Macmillan, Londres, (1986).
- MASSEY, D; *Spatial Divisions of Labour. Social Structures and the Geography of Production*, Macmillan, Londres, 1984.
- POULANTZAS, N; *Pouvoir politique et classes sociales*, F. Maspero, Paris, 1968.